

Erresilientzian dago gakoa

ENERGIA BURUJABETZA



OIER ETXEBARRIA GOIENER
ARGAZKIA: ANDREY METELEV

Azken egunetan, Ukraina dago egunkari eta telebistetako berrien lehen lerroan. Munduko boteretsuak, oilarren arteko borroka balitz bezala, euren gandorrek erakusten ari dira, nor baino nor gehiago, herrialde horren burujabetzari inongo errespeturik erakutsi gabe. Beste askotan bezala, herrialdean izan nahi duten eragina dago lerro buruan, baina, beste behin, benetako gakoa ezkututzen ari dira: Ukrainian gertatzen ari dena energiaren gaineko eta diru irabaziak ziurtatzeko beste borroka bat da, Afganistanen, Iraken eta Sirian izan den moduan.

Energiaren prezioa, gora

Errusiak Ukrainatik bidaltzen duen gasa oso arma boteretsua da Europaren aurrean, gasaren giltza berea baita. Alde batetik, energiaren prezioa gehiago garestitu dezake, gasarena zein argindarrarena –batak bestean baitauka eragina–. Bestetik, energia menpekotasunak eraginda, herrialde batzuk gasaren eskasaren beldur dira. Euskal Herriaren kasuan, kontsumitzen dugun gasaren gehiengoak Afrikatik edo urrutitik datozen itsasontzietan dator, baina krisi honek prezioan eragiten du.

Erresilientzia lantzeko pausoak

Eta zer dago gure esku? Aurreko artikuluetan esan bezala, erresilientzian dago gakoa, eta hau lantzeko aukera batzuk emango ditut gaur.

Nire ikuspuntutik, erresilientzia lantzeko energia burujabetzan aurrerapausoak ematea ezinbestekoa da. Honek norbere energia kontsumoa jaitea eta efizienteagoa egitea dakar, besteak beste, eta kolektiboki erantzuna eman behar diogu. Instituzioen, enpresen eta norbanakoan apustuak irmoa izan behar du.

Bestalde, gure energia kontratuen baldintzetan duintasuna lortu behar dugu potentzia gure beharretara egokituaz, fakturaren parte finkoa ahalik eta txikiena izan dadin. Kontratatuak izaten diren gehiegizko zerbitzuak kendu daitezke, ez baitute ezertarako balio, eta bonu soziala jaso dezakeenak araututako merkaturatzaileara pasatu beharko luke, hau tramitatu ahal izateko.

Horrez gain, ahal den heinean, 2021eko ekainaren 1ean indarrean sartu zen tarifa berrira moldatu behar ditugu gure argindar kontsumoak. Astegunetan ordu merkeenak 00:00etatik 08:00ak arte dira eta asteburuetan eta jaiegunetan egun osoan. Garestienak, aldiz, 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 22:00etara.



**GURE HERRIETAKO
ENERGIA
KOMUNITATEEN BIDEZ
LANTZEA DA
ETORKIZUNEKO
APUSTUA**

Aurrezteko gomendioak

Era berean, efizientzia eta kontsumo aurrezpeneko neurriak ere hartu behar dira. Horretarako, gure kontsumoak non dauden jakitea komeni den arren, aurrezpenerako gomendio orokorrak hauek dira: hozkailuak eta izezkailuak egoera onean daudela eta kontsumo baxukoak direla ziurtatu. Etxetresna handienak –ontzi-garbigailua, arropa-garbigailua, arropa-lehorgailua...– kontsumo ahalik eta baxuagokoenak izatea komeni da –garai bateko

A++ edo A+++ eta gaur egungo A edo B– eta etxeko argiteria ledera pasatzea. Gasari dagokionez, bainuak beharrezko dutxak hartzea da gomendio ohikoena, baina, neguan izaten ditugun gas fakturen tamainari aurre egiteko, beste neurri hauek oso eraginkorrak izan ohi dira: berogailua pizteko programatzaila bat erabiltzea eta egunean zehar etxean gaudenean, etxeko tenperatura 19-20 gradu bitartean izatea, eta ohean edo kanpoan gaudenean 16-17 gradutan.

Behar izanez gero, etxe barruan arropa-geruza bat gehiago jartzeak diru asko aurrezteko ekar dezake.

Beste neurri batzuk ere har ditzakegu; etxearren isolamenduaren inguruan, adibidez: leihoak bi geruza izatea eta paretei, lurrari eta sabaiari edo teilatuari isolamendu-geruza bat jartzea. Azken neurri horiek inbertsio garrantzitsuak izango dira, baina gaur egun, dirulaguntza programak daude horiek babesteko.

Taldean, indartsuago

Halaber, bakarrik beharrezko taldean eraginkorragoak garenez, gure herrietan garatzen ari diren energia komunitateen bidez erresilientzia eta burujabetza lantzea da etorkizun motzeko apustua. Zure herrian komunitateren bat martxan jartzen badabil, batu zaitez lantaldera, eta, oraindik ez badago, interesa daukazula adierazi eta herritarrak elkartu eta Udalarri komunitateak martxan jartzeko prozesua babesteko eskatu. ■